



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2017/10/27

## **Aldundiak, familia giroko zainketetarako prestazino ekonomikoa jasoten daben Bizkaiko ia 3.800 etxe ikuskatuko ditu urtero**

Bizkaiko Foru Aldundiak “Gizarte Zerbitzuen eta Prestazinoen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2017-2019 Plan Orokorra” aurkeztu dau gaur Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean, Podemos Bizkaia taldeak eskatuta. Planaren helburua gizarte zerbitzuen eraginkortasuna eta kalidadea “bultzatzea, hobetzea eta indartzea” da, “behar dabezanengana helduko dirala bermatzeko”, Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako foru diputatuak adierazo dauenez.

Plan barriaren helburu nagusia, Aldundiak milaka pertsonaren esku jarten dituan zerbitzuen eta prestazinoen “baldintzen eta helburuaren jarraipen sistematizaua eta koordinaua” egitea da. “16.000 prestazino eta 350 zentro baino gehiago” aztertuko dira, “gizarteak eskatzen deuskun kontrol handiagoari” erantzuteko.

Plana ez da “hutsetik” abiarazoten, Gizarte Ekintzako arduradunak esan dauenez, Aldundiak urte asko daroazalako ikuskapen eta kontrol beharrak egiten, baina “barrikuntza bi” sartzen ditu. Horreetako bat, etxeko giroan zainketak emoteko prestazino ekonomikoa jasoten daben etxeetan egingo dan kontrolagaz dago erlazionautu. Aldundiak markau daben helburua beteten bada, urtero “3.756” etxetara joango da, beste gauza batzuen artean, arretea jasoten daben pertsonen osasun egoerea eta zaintzaileen laneko gain-kargea egiaztetako. Bizkaian laguntza horreen 15.000 hartzaile baino gehiago dagoz.

Jarduketako beste ildo barrietako bat, urtero egoitzetan zaintzen diran onuradunen “%10” be ikuskatuko dirala izango da, Banakako Arreta Planen (BAP-PAI) jarraipenaren bitartez.

Plan horren barruan, urtean Lurraldean baimenduta dagozan 327 zentroen “%100” aztertuko dira, araudia beteten dabela egiaztetako. Ikuskapen hori hitzarmenetara –daborduko egiten diran auditorien bidez– eta diru-laguntzen “%100era” be helduko da.

Horrez gain, Aldundiak pertsona onuradunen eskakizun espezifikokoak beteten dirala eta emondako prestazinoak behar dan moduan erabilten dirala aztertuko dau. Jarraipenak, Bizkaiko Foru Aldundiak eskintzen dauen eta izaera ekonomikoa daben gizarte arloko prestazino “guztien” moltsoa hartuko dau, mendekotasunaren, urritasunaren eta bazterketaren arloetan. 2017rako “urtero 10.000 azterketa baino gehiago” egitea aurreikusten da.

Aldundiko hiru sailek (Gizarte Ekintza, Ogasuna eta Finantzak, eta Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna) egin daben eta “sail horreetako hiru diputatuak buru diran” planaren hedapenaren eta ezarpenaren hasierako fasea 2017tik aurrera gauzatuko da, 2018an zerbitzu gehiago sartuz. Horretarako “600.000 euroko” partidea bideratuko da urtero.

BATZARRETAKO TALDEAK



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Batzarretako talde gehienak ados agertu dira planagaz, baina Podemos Bizkaiak eta EH Bilduk esan dabe pena bat dala “kontrola lurraldean behar gehien dituen pertsonengan jartea”. Podemos Bizkaiako Josean Elgezabalen eretziz, ez dago gizarte arloko laguntzetan eta zerbitzuetan Aldundiak aurrera daroazan politikiei jagoken “iruzurraren foku nagusia”.

EH Bilduko Arantza Urkaregik, bere aldetik, Aldundiak irailean aurkeztu eban “Laguntzak bai, kontrola ere bai” kanpainaren mezu “okerra” eta “estigmatizagarria” kritikau dau, eta kanpaina hori baztertzeko eskaria egin dau, PPK zabaltzen dauen mezutik oso gertu dagolako.

Kritika horreetan, Foru Gobernuari eta EAJ-PNV alderdiari zuzendutako “kulpa edo kriminalizazio” tonua ikusi dau Jon Sánchez jeltzaleak. Bere eretziz, bere taldeak argi eta garbi erakutsi dau urte luzeak daroazala gizarte arloko zerbitzuen hobekuntzaren “lehenengo lerroan”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

NOTA DE PRENSA  
27/10/2017

## **La Diputación inspeccionará al año casi 3.800 hogares vizcaínos que reciben la prestación económica para los cuidados en el entorno familiar**

La Diputación Foral de Bizkaia ha presentado hoy, a petición del grupo Podemos Bizkaia, en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia, el "Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales 2017-2019" que pretende "intensificar, mejorar y reforzar" la eficacia y la calidad de los servicios sociales con el objeto de "garantizar" que éstos "lleguen a quienes lo necesitan", ha declarado la diputada foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles.

El objetivo principal del nuevo plan es realizar un seguimiento "sistematizado y coordinado de los requisitos y de la finalidad" de los servicios y prestaciones que la Diputación pone en manos de miles de personas. Se chequearán "más de 16.000 prestaciones y más de 350 centros", en respuesta "a un mayor control que nos demanda la sociedad".

El plan no parte "de cero", según la responsable foral de Acción Social, ya que la Diputación lleva décadas realizando labores de inspección y control, aunque incorpora "dos novedades" respecto a lo que se venía haciendo hasta ahora. Una de ellas guarda relación con el control que se ejercerá en aquellos hogares perceptores de la prestación económica para los cuidados en el entorno familiar. La Diputación se ha marcado como objetivo acudir cada año a "3.756" domicilios para comprobar, entre otras cosas, el estado de salud de las personas asistidas y la sobrecarga laboral de las personas cuidadoras. En Bizkaia existen más de 15.000 perceptores de estas ayudas.

Otra de las nuevas líneas de actuación será la inspección anual "de un 10%" de beneficiarios de cuidados en centros, a través del seguimiento de los planes de atención individualizada (PAI).

El plan incluye también la inspección "del 100%" de los 327 centros autorizados en el Territorio anualmente, al objeto de verificar que cumplen la normativa reguladora. Esta inspección alcanzará también a los convenios –a través de las auditorías que ya se hacen- y "al 100%" de las subvenciones.

Asimismo, la Diputación chequeará el cumplimiento de los requisitos específicos de las personas beneficiarias y el uso adecuado de las prestaciones concedidas. El seguimiento abarca el conjunto de "todas" las prestaciones sociales de carácter económico que ofrece la Diputación Foral de Bizkaia, en el ámbito de la dependencia, la discapacidad y la exclusión. Para el año 2017 se prevé la realización de "más de 10.000 revisiones anuales".

El despliegue y la implantación de este plan, que ha sido elaborado por tres departamentos forales (Acción Social, Hacienda y Finanzas, y Empleo, Inserción Social e Igualdad) "y capitaneada por sus tres diputados", se desarrollará en una fase inicial a partir del año 2017, con



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

la incorporación de nuevos servicios durante 2018. A tal fin se destinará una partida anual de “600.000 euros”.

#### GRUPOS JUNTEROS

La mayoría de los grupos junteros han mostrado su conformidad con el plan, si bien Podemos Bizkaia y EH Bildu han lamentado “que se ponga el foco en las personas más necesitadas” del territorio. Para Josean Elgezabal, de Podemos Bizkaia, en las ayudas y servicios sociales no está “el principal foco de fraude” en relación a las políticas que lleva a cabo la Diputación.

Por su parte, la juntera Arantza Urkaregi, de EH Bildu, ha criticado el mensaje “erróneo” y “estigmatizante” de la campaña presentada en septiembre por la Diputación con el lema “Ayudas sí, control también” y ha pedido su retirada por acercarse al mensaje que transmite el PP.

Ante estas críticas, el jeltzale Jon Sánchez ha visto un tono “de culpabilidad o criminalización” hacia el Gobierno foral y hacia el PNV. A su juicio, su formación ha demostrado que está desde hace décadas “en primera línea” en la mejora de los servicios sociales.